# Xedapen Orokorrak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 2018

56/2008 DEKRETUA, apirilaren 1ekoa, Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Araudia ezartzen duena.

Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, V. tituluko I. kapituluan Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren oinarriak sortu eta arautzen ditu, haur eta nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzen diren egoeretan eskubide horiek defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegokoan sustatzeko organo gisa.

Defentsa Bulegoaren izaera juridikoari dagokionez, adierazitako Legeak gizarte-gaietan eskumena duen Sailari atxikitzen dio, baina bertan integratu gabe, eta bere zereginak Administrazioarekiko autonomia osoz gauzatuz.

Otsailaren 18ko 3/2005 Legeak Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren zereginak eta antolamendua oro har ezartzen du, eta, era berean, organo horren antolamendu eta funtzionamendurako berariazko araudia landu eta onartzeko epe zehatza ematen du.

Dekretu honek, besteak beste, Haur eta Nerabeen defendatzailearen figura arautzen du, eta jardunak eta ikerketak gauzatzeko unean hark jarraituko duen prozedura ezartzen du. Azkenik, beste erakunde, langile eta erregimen ekonomiko batzuekin dituzten harremanei buruzko alderdiak arautzen ditu, besteak beste.

Horren ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzunda eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 1ean egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen helburua Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren antolamendu eta funtzionamendua ezartzea da, Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legeak agintzen dizkion helburuak betetzeko.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 2018

DECRETO 56/2008, de 1 de abril, por el que se establece el reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia.

La Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, en el Capítulo I de su Título V, crea y regula en sus líneas básicas la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, como órgano de defensa ante situaciones de amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia y de sensibilización y promoción de éstas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Respecto a la naturaleza jurídica de la Defensoría, la citada Ley la adscribe al Departamento competente en materia de asuntos sociales, aunque sin integrarse en él, ejerciendo sus funciones con plena autonomía respecto a la Administración.

Si bien la Ley 3/2005, de 18 de febrero, establece con carácter general las funciones y la organización de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, otorga un plazo concreto para que se proceda a la elaboración y aprobación del reglamento de organización y funcionamiento específico de dicho órgano.

El presente Decreto, entre otras cuestiones, regula la figura de la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia y establece el procedimiento por el que se regirá a la hora de proceder a sus actuaciones e investigaciones. Por último, también se incide en otros aspectos como el relativo a la colaboración con otras instituciones, el personal y el régimen económico.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 1 de abril de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto establecer la organización y el funcionamiento de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, a efecto del cumplimiento de los fines que le encomienda la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

*2. artikulua.–* Izaera juridikoa.

Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legean ezarritakoaren arabera, Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa bere funtzioak Administrazioarekiko autonomia osoz gauzatzen dituen eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitzen zaion organo gisa -bertan integratu gabe- egituratu da.

*3. artikulua.–* Helburuak.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak honako helburu hauek izango ditu: haur eta nerabeen eskubideen mehatxu- eta urraketa- egoerei aurre egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan dauden eskubideez sentsibilizatzea eta horiek sustatzea.

*4. artikulua.–* Zereginak.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak honako zeregin hauek izango ditu:

a) Haur eta nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzeagatik egiten diren kexak bildu eta lehen aldiz ebaluatzea. Horren ondorioz, Defentsa Bulegoak informatzeko edo erkatzeko aldez aurreko aldia irekiko du, kasu zehatzaren nondik norakoak ezagutzeko eta kexa izapidetzea komeni den jakiteko.

b) Hala badagokio, haur eta nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzeagatik egiten diren kexak eskumeneko erakunde eta organoetara eskualdatzea.

c) Erakunde arteko negoziazio eta lankidetzarako bideak erraztea eta aholkuak ematea haur eta nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzen diren egoerak zuzentzeko. Aholku horiek betetzen direla zaintzeko jarraipena egingo da.

d) Haur eta nerabeen eskubideen aldeko sentsibilizazio-zereginak eta eskubide horiek gizartean sustatzeko zereginak gauzatzea.

e) Haur eta nerabeen eskubideen zabalkuntza bultzatzea eta horiek baliatzeko aukera sustatzea.

f) Haur eta nerabeei aholkularitza eta laguntza ematea beren eskubideak mehatxatzen edo urratzen diren egoeretan.

g) Haur eta nerabeen eskubideen aldeko aholkularitza indartzea, eta eskubide horien alde lan egiten duten elkarte eta erakundeen sustapen zuzena indartzea.

h) Koordinazio-mekanismoak bultzatzea Arartekoarekin, baita haur eta nerabeen arloan eskumena duten beste organo eta erakunde batzuekin ere.

i) Haur eta nerabeen erakunde- nahiz gizarte-mailako babesari buruzko araudiaren betetze- eta egokitzemaila aztertu eta ebaluatzea. Horren ondorioz, burutzen diren jardunak biltzen dituen urteko irizpen bat landuko du eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko du.

*Artículo 2.–* Naturaleza jurídica.

La Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, de conformidad con lo establecido en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, se configura como un órgano que ejerce sus funciones con plena autonomía respecto a la Administración y que se adscribe al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales sin integrarse en él.

*Artículo 3.–* Fines.

Los fines de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia son la defensa ante situaciones de amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia, y la sensibilización y promoción de éstas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 4.–* Funciones.

Corresponde a la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Recogida y primera evaluación de las quejas que se formulen por amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia. A estos efectos, la Defensoría abrirá un período de información o contraste previo con el fin de conocer las circunstancias del caso concreto y la conveniencia o no de tramitar la queja.

b) Derivar, en su caso, a las instituciones y órganos competentes las quejas que se formulen por amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia.

c) Facilitar vías de negociación y colaboración interinstitucional y dirigir recomendaciones con el fin de corregir situaciones o prácticas de amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia. Se realizará un seguimiento del cumplimiento de las citadas recomendaciones.

d) Realizar funciones de sensibilización a favor de los derechos de la infancia y la adolescencia y de promoción social de estos derechos.

e) Fomentar la divulgación de los derechos de la infancia y la adolescencia y promover su ejercicio.

f) Prestar asesoramiento y asistencia a la infancia y la adolescencia ante posibles situaciones o prácticas de amenaza o vulneración de sus derechos.

g) Potenciar el asociacionismo a favor de los derechos de la infancia y la adolescencia, así como la promoción directa de las asociaciones y entidades que trabajan en pro de estos derechos.

h) Proponer mecanismos de coordinación con el Ararteko, así como con otros órganos e instituciones competentes en materia de infancia y adolescencia.

i) Analizar y evaluar el grado de cumplimiento y adecuación de la normativa relativa a la protección de la infancia y la adolescencia tanto a nivel institucional como social. A estos efectos, elaborará un dictamen anual en el que se recojan las actuaciones llevadas a cabo y que será presentado ante el Parlamento Vasco.

j) Haur eta nerabeen eskubideen defentsa bizkortzen duten eta horien arretarako zerbitzuak hobetzen laguntzen duten legezko, administrazioko eta prozedurazko erreformak proposatzea.

k) Bere helburuak betetzeko agintzen zaion beste edozein zeregin.

*5. artikulua.–* Doakoa.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak gauzatutako jardunak doakoak izango dira interesdunentzat.

*6. artikulua.–* Erreserba-betebeharra.

1.– Defentsa Bulegoak behar bezalako erreserbaz jardungo du haurrak eta nerabeak zaintzearen eta babestearen eremuan, eta neurri egokiak hartuko ditu eskura duen informazioaren eta informazio hori jasota dagoen fitxategi edo erregistroen tratamendu konfidentziala bermatzeko, intimitaterako eskubidea betez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututakoaren arabera.

2.– Defentsa Bulegoaren zerbitzuan lan egiten duten pertsona guztiek bertan izapidetzen diren gaien erreserba zorrotza gorde beharko dute.

*7. artikulua.–* Harremana Eusko Legebiltzarrarekin.

1.– Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak urtero lantzen duen irizpena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu beharko du, otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 97. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Urteko irizpenak gutxienez honako eduki hauek izan beharko ditu:

a) Ofizioz nahiz alderdietako batek eskatuta, gauzatutako ikerketen kopuru eta motaren zerrenda, eta horien emaitzak, gauzatutako proposamen eta aholkuak adieraziz eta onartuak izan diren ala ez adieraziz; era berean, hala badagokio, Defentsa Bulegoaren ikerketa-ekintza zaildu edo oztopatu deneko egoerak adieraziko dira.

b) Atzera botatako kexen eta arrazoien zerrenda.

c) Gauzatutako aholkuen kopuru eta motaren zerrenda.

d) Hala badagokio, gauzatutako legegintzako eta lege-erreformako azterlan eta proposamenen zerrenda.

e) Interesgarritzat hartzen den beste edozein gai.

3.– Defentsa Bulegoa Legebiltzarreko dagozkion batzordeetara joango da deitzen dutenean.

## II. KAPITULUA
## HAUR ETA NERABEEN DEFENDATZAILEA

*8. artikulua.–* Izendapena.

j) Proponer reformas legales, administrativas y procedimentales que agilicen la defensa de los derechos de la infancia y la adolescencia y contribuyan a mejorar los servicios destinados a su atención.

k) Cualquier otra función que le sea encomendada para el cumplimiento de sus fines.

*Artículo 5.–* Carácter gratuito.

Las actuaciones realizadas por la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia tendrán carácter gratuito para las personas interesadas.

*Artículo 6.–* Deber de reserva.

1.– La Defensoría actuará con la obligada reserva en el ámbito de la atención y protección a la infancia y la adolescencia, adoptando las medidas oportunas para garantizar, en aplicación del derecho a la intimidad, el tratamiento confidencial de la información con la que cuente y de los ficheros o registros en los que conste dicha información, en los términos regulados en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

2.– Toda persona al servicio de la Defensoría está sujeta a la obligación de mantener estricta reserva en los asuntos que ante ella se tramiten.

*Artículo 7.–* La relación con el Parlamento Vasco.

1.– La Defensoría para la Infancia y la Adolescencia ha de presentar ante el Parlamento Vasco el dictamen anual que elabore, de acuerdo con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 3/2005, de 18 de febrero.

2.– El dictamen anual debe incluir al menos los siguientes contenidos:

a) Relación del número y tipo de investigaciones llevadas a cabo, tanto de oficio como a instancia de parte, y el resultado de las mismas, señalando las propuestas y las recomendaciones realizadas y si han sido aceptadas o no, así como, en su caso, los supuestos en los que se haya dificultado o impedido la acción investigadora de la Defensoría.

b) Relación de las quejas rechazadas y sus motivos.

c) Relación del número y tipo de asesoramientos llevados a cabo.

d) En su caso, relación de estudios y de propuestas de legislación y de reforma legislativa realizadas.

e) Cualesquiera otras cuestiones que se consideren de interés.

3.– La Defensoría acudirá a las comisiones parlamentarias correspondientes cuando fuera convocada.

## CAPÍTULO II
## LA DEFENSORA O EL DEFENSOR DE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA

*Artículo 8.–* Nombramiento.

Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legearen arabera, Haur eta Nerabeen defendatzailea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta izendatuko da, lehendakariaren Dekretu bidez, lau urteko aldirako, eta iraupen bereko beste aldi baterako izendatu ahalko da berriro. Izendapena Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak gehiengo osoz berretsi beharko du.

*9. artikulua.–* Bateraezintasunen erregimena.

Haur eta Nerabeen defendatzailea izatea ez da bateragarria honako hauekin:

a) Herritarrek hautatutako ordezkaritza-agindu ororekin.

b) Hautespen libreko edozein kargu politikorekin.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresa-erakunde bateko kide izatearekin.

d) Zuzendaritzako zereginak betetzearekin elkarte edo fundazio batetan.

e) Karrera judizialean eta fiskalean jardutearekin.

f) Edozein jarduera profesional, liberal eta merkataritzako edo laneko jarduera gauzatzearekin.

*10. artikulua.–* Kargua uztea.

1.– Haur eta Nerabeen defendatzaileak bere kargua utziko du honako kausa hauengatik:

a) Uko egiteagatik.

b) Izendapenaren epea amaitzeagatik.

c) Heriotza edo ezintasunagatik.

d) Karguan egonik, bere zereginen ez-betetze larriagatik.

e) Doluzko delituagatiko epai irmoan kondenatua izateagatik.

f) Ezinbesteko bateraezintasunagatik.

2.– Aurreko idatz-zatiko kasuren bat gertatzen bada, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak horren berri emango dio Legebiltzarraren Osoko Bilkurari. Gaia aztertzen denean kargua uzteko arrazoiak daudela ondorioztatzen bada, lehendakariaren dekretu bidez gauzatuko da.

3.– 1.b) idatz-zatian ezarritako arrazoiagatik kargua uzten denean, Haur eta Nerabeen defendatzaileak bere zereginak betetzen jarraituko du defendatzaile berria izendatzen den arte.

*11. artikulua.–* Defentsa Bulegoaren titularraren zereginak.

4. artikuluan ezarritako zereginak garatzeko, Haur eta Nerabeen defendatzaileak honako zeregin hauek izango ditu:

La Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia, de conformidad con la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, se designará a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por Decreto del Lehendakari, por un período de cuatro años y podrá volverse a nombrar por otro período de la misma duración. Este nombramiento deberá ser ratificado por el Pleno del Parlamento Vasco y por mayoría absoluta.

*Artículo 9.–* Régimen de incompatibilidades.

La condición de Defensora o Defensor de la Infancia y la Adolescencia es incompatible con:

a) Todo mandato representativo de elección popular.

b) Cualquier cargo político de libre designación.

c) La afiliación a un partido político, sindicato u organización empresarial.

d) El desempeño de funciones directivas en una asociación o fundación.

e) El ejercicio de las carreras judicial y fiscal.

f) El ejercicio de cualquier actividad profesional, liberal, mercantil o laboral.

*Artículo 10.–* Cese.

1.– La Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia cesará en su cargo por alguna de las siguientes causas:

a) Renuncia.

b) Expiración del plazo para el que se ha producido su nombramiento.

c) Fallecimiento o incapacidad sobrevenida.

d) Incumplimiento grave de sus deberes en el ejercicio de su cargo.

e) Haber sido condenada o condenado en sentencia firme por delito doloso.

f) Incompatibilidad sobrevenida.

2.– Si se produjera alguno de los supuestos del apartado anterior, el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales informará de ello al Pleno del Parlamento. Si del examen del asunto resulta la existencia de razones para el cese, éste se formalizará mediante Decreto del o la Lehendakari.

3.– Cuando el cese se produzca por la causa establecida en el apartado 1.b), la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia continúa desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de la nueva Defensora o el nuevo Defensor.

*Artículo 11.–* Funciones del titular de la Defensoría.

Para el desarrollo de las funciones establecidas en el artículo 4, corresponde a la Defensora o al Defensor de la Infancia y la Adolescencia:

a) Defentsa Bulegoaren ordezkari izatea.

b) Defentsa Bulegoaren jardun-politikan helburuen lehentasunak ezartzea.

c) Defentsa Bulegoaren jarduna haur eta nerabeen eskubideen alde bideratzea, eskubide horien alde lan egiten duten elkarte eta erakundeen aldeko eta eskubideen aldeko sentsibilizazio, laguntza, zabalpen eta sustapeneko ekintzak diseinatu eta ezarriz.

d) Pertsona fisiko edo juridikoei pertsonalki edo idazki bidez zuzentzea, aurkeztutako kexak eta ofizioz hasten diren jardunak izapidetu ahal izateko behar den informazioa biltzeko.

e) Egindako kexen eta ofizioz hasitako jardunen izapidetze, egiaztapen eta azterketak zuzentzea.

f) Kexak izapidetzea onartzeari edo ez onartzeari buruz, ikerketen azken ebazpenari buruz, eta ofiziozko jardunei buruz erabakitzea.

g) Defentsa Bulegoaren lanaren nondik norakoak, haren ikerketak eta txostenak hedatzea.

h) Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak 97.2.i) artikuluan aurreikusten duen urteko irizpena Eusko Legebiltzarrean aurkeztea.

i) Urtero Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren aurrekontu-aurreproiektua Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari proposatzea, eta urteko aurrekontuaren likidazioa aurkeztea.

j) Bere aurrekontua gauzatzeko jarraibideak finkatzea, aplikagarria den aurrekontu-legediaren arabera.

k) Kontratazio-organoaren ahalmenak gauzatzea.

l) Aurrekontua gauzatzetik ondorioztatutako gastuak baimentzea eta xedatzea.

m) Eskumeneko organoei proposatzea langileen plantillaren egitura eta lanpostu bakoitzaren ezaugarri eta baldintzak, aurrekontuen arabera.

n) Aholkularia eta konfiantzazko pertsonak izendatzea eta haiek kargutik kentzea.

ñ) Defentsa Bulegoaren administrazio-zuzendaritza gorena egikaritzea, eta barne-arloko jarraibideak ematea.

o) Diziplina-ahalmena egikaritzea, zerbitzutik kentzea izan ezik.

p) Koordinazio eta lankidetzako mekanismoak ezartzea, Defentsa Bulegoari dagozkion helburuak gauzatzeko.

q) Defentsa Bulegoaren izenean bere zereginak garatzeko beharrezkoak diren kontratu publiko eta pribatuak ematea, Euskadiren ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legeak ondare-eremuko kontratuei

a) Representar a la Defensoría.

b) Establecer las prioridades de objetivos en la política de actuación de la Defensoría.

c) Orientar la actuación de la Defensoría en pro de los derechos de la infancia y la adolescencia mediante el diseño e implementación de acciones de sensibilización, asistencia, difusión y promoción a favor de estos derechos y de las asociaciones y entidades que trabajan en pro de éstos.

d) Dirigirse, personalmente o por escrito, a las distintas personas físicas o jurídicas, con el fin de recabar la información necesaria para poder tramitar las quejas presentadas y las actuaciones que se inicien de oficio.

e) Dirigir la tramitación, comprobación e investigación de las quejas formuladas y de las actuaciones que se inicien de oficio.

f) Decidir sobre la admisión o inadmisión a trámite de las quejas y sobre la resolución última de las investigaciones, y sobre las actuaciones de oficio.

g) Divulgar la naturaleza del trabajo de la Defensoría, sus investigaciones e informes.

h) Presentar al Parlamento Vasco el dictamen anual que la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia prevé en su artículo 97.2.i).

i) Proponer anualmente al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales el anteproyecto de presupuesto de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, y presentar la liquidación del presupuesto anual.

j) Fijar las directrices para la ejecución de su presupuesto, conforme a la legislación presupuestaria aplicable.

k) Ejercer las facultades de órgano de contratación.

l) Autorizar y disponer los gastos derivados de la ejecución del presupuesto.

m) Proponer a los órganos competentes la configuración de la plantilla de personal y las características y requisitos de cada puesto de trabajo en el marco de las disponibilidades presupuestarias.

n) Nombrar y cesar a las personas asesoras y al personal de confianza.

ñ) Ejercer la superior dirección administrativa de la Defensoría, así como dictar instrucciones de orden interno.

o) Ejercer la potestad disciplinaria, excepto la separación del servicio.

p) Establecer mecanismos de coordinación y colaboración para la consecución de los fines atribuidos a la Defensoría.

q) Otorgar, en nombre de la Defensoría, los contratos públicos y privados necesarios para el desarrollo de sus funciones, sin perjuicio de lo dispuesto en materia de contratos en el ámbito patrimonial por la Ley

buruz xedatzen duena alde batera utzi gabe, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak Ogasun eta Herri Administrazioko sailari eta Jaurlaritzako Kontseiluari ematen dizkion ahalmenak alde batera utzi gabe.

*12. artikulua.–* Ordainsariak.

1.– Haur eta Nerabeen defendatzaileak Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Autonomia Erkidegoko Administrazioko zuzendariei esleitzen zaizkien ordainsariak jasotzen ditu, eta, otsailaren 18ko 3/2005 Legean xedaturikoa deuseztatzen ez duen guztiari dagokionez, kargu horiek arautzen dituzten arauak aplikatzen zaizkio.

2.– Lehendakaritzako kideen, Administrazioko goikarguen eta eskubide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendarien ondare-eskubide eta ondare-ondasunak eta jardueren adierazpena eta erregistroa arautzen dituen otsailaren 23ko 129/1999 Dekretuan xedaturikoa aplikatuz, Haur eta Nerabeen defendatzaileak bere ondasunak eta jarduerak adierazi beharko ditu.

III. KAPITULUA
IKERKETA PROZEDURA

1. ATALA
HASIERA

*13. artikulua.–* Prozedura hasteko moduak.

1.– Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak ikerketak hasi ahalko ditu, ofizioz edo alderdi batek eskatuta.

2.– Haur eta Nerabeen defendatzaileak ofiziozko ikerketa bat hasi beharko du, bere kabuz haur edo nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzen diren egoera baten berri izaten duenean.

*14. artikulua.–* Alderdiak eskatutako hasiera.

1.– Pertsona fisiko edo juridiko orok jo ahalko du erakundera, nazionalitatea, erresidentzia edo adina kontuan hartu gabe, eta baita edozein administrazio-agintarik ere, bere eskumenekoak ez diren gaietan.

2.– Kexa guztiak arrazoituta eta idazki bidez aurkeztuko ditu interesdunak, izena, abizenak eta lehentasunezko bitartekoa edo jakinarazpenetarako adierazten den tokia adieraziz. Era berean, kexa egin den eguna eta tokia adieraziko du, eta baita kexa zein pertsona fisiko edo juridikoren aurka egin duen ere.

3.– Aurreko idatz-zatian xedaturikoa gorabehera, eta adingabeek egindako kexen aurkezpena errazteko,

5/2006, de 17 de noviembre, del Patrimonio de Euskadi, y de las facultades atribuidas al Consejo de Gobierno y al Departamento de Hacienda y Administración Pública por el Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 12.–* Retribución.

1.– La Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia percibe las retribuciones que en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma tienen asignados los directores o directoras de la Administración de la Comunidad Autónoma y le son de aplicación, en todo aquello que no contradiga lo dispuesto en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, las normas que regulan dichos cargos.

2.– La Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia queda obligado a la declaración de sus bienes y actividades, en aplicación de lo dispuesto en el Decreto 129/1999, de 23 de febrero, que regula la declaración y registro de las actividades y los derechos y bienes patrimoniales de los miembros del Gobierno, los altos cargos de la Administración y los directivos de los entes públicos de derecho privado y de las sociedades públicas.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO DE INVESTIGACIÓN

SECCIÓN 1.ª
INICIO

*Artículo 13.–* Formas de iniciación del procedimiento.

1.– La Defensoría para la Infancia y la Adolescencia podrá iniciar investigaciones de oficio o a instancia de parte.

2.– La Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia deberá iniciar una investigación de oficio cuando por sus propios medios conociera de una situación de amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia.

*Artículo 14.–* Iniciación a instancia de parte.

1.– Se podrá dirigir a la institución toda persona física o jurídica, con independencia de su nacionalidad, residencia o edad, además de cualquier autoridad administrativa en asuntos que no sean de su competencia.

2.– Toda queja se presentará en escrito razonado firmada por la persona interesada con indicación de su nombre, apellidos y medio preferente o lugar que se señale a efectos de notificaciones. Se expresará también la fecha y el lugar en el que se formula la queja, así como la identificación de la persona física o jurídica contra la que se formula la queja.

3.– No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, y para facilitar la presentación de quejas formuladas por

adingabe horiek pertsonalki, telefono bidez edo herritarren eta Administrazioaren arteko harremanetarako erabil daitekeen beste edozein mekanismoren bitartez zuzendu ahalko dira Defentsa Bulegoan, betiere haien nortasuna ondoren behar bezala egiaztatu badaiteke eta kexaren edukia adierazten bada.

4.– Kexa guztiak urtebeteko epean aurkeztu beharko dira, gertakari eragileen berri izaten denetik zenbatzen hasita.

5.– Defentsa Bulegoak ikerketa-prozedura jarraitu ahalko du, baita eraginpeko pertsonak kexa kendu nahi duela adierazten badu ere.

2. ATALA
IZAPIDEAK

*15. artikulua.–* Onargarritasuna.

1.– Kexak behar bezala erregistratuko dira eta jaso izana ziurtatuko da. Aztertu ondoren, onartu edo ukatuko dira. Kexak arrazoituta eta idazki bidez ukatuko dira, eta bere jarduera egiteko bide egokienei buruzko informazioa emango zaio interesdunari, betiere biderik baldin badago.

2.– Kexa baten aurkezpenak, eta horren ondorengo onarpenak, ez ditu bertan behera utziko administrazio-bidetik nahiz jurisdikzio-bidetik errekurritzeko Legeak aurreikusten dituen epeak, ezta eraginpeko ebazpena edo ekintza gauzatzea ere.

3.– Defentsa Bulegoak ez dauka eskumenik administrazio-ekintzak errebokatzeko, ezeztatzeko edo zehatzeko.

4.– Haur eta Nerabeen defendatzaileak ez du banakako azterketarik egingo epai irmo bat izan duten edota erabaki judizialaren zain dauden kexen kasuan. Era berean, jarduna hasi ondoren, interesdunak Epaitegi edo Auzitegietan salaketa edo errekurtso bat jartzen badu, jarduna bertan behera utziko da. Hala ere, aurkeztutako kexetan adierazitako arazo orokorrei buruzko ikerketa ez du saihestuko.

*16. artikulua.–* Ikerketa.

1.– Kexa onartu ondoren edo ofiziozko prozedura hasi ondoren, Haur eta Nerabeen defendatzaileak gertatutakoa argitzeko dagokion ikerketak sustatuko ditu.

2.– Prozeduraren fase honetan kexaren eraginpeko pertsonak esateko zen duen entzungo da, gehienez ere hamar eguneko epean alegazioak egin ditzan, eta gertatutakoa argitzeko bidezkotzat hartzen dituen dokumentuak edo beste elementuak eman ditzan. Kexaren eraginpeko pertsonak ikerketen eginbideetarako sarrera izango du, eta horiek behar bezala dokumentatuak egon beharko dute espedientean, entzunaldi-izapide hori behar bezala betetzeko.

menores de edad, éstos y éstas podrán dirigirse a la Defensoría mediante comparecencia personal, vía telefónica o a través de cualquier otro mecanismo que se pueda articular para la relación entre la ciudadanía y la administración, siempre que su identidad pueda ser acreditada fehacientemente con posterioridad y se plasme el contenido de su queja.

4.– Toda queja deberá ser presentada en el plazo máximo de un año, contado a partir del momento en que se tenga conocimiento de los hechos.

5.– La Defensoría puede continuar el procedimiento investigatorio incluso en el caso de que la persona afectada manifestara su deseo de retirar la queja.

SECCIÓN 2.ª
TRAMITACIÓN

*Artículo 15.–* Admisibilidad.

1.– Las quejas quedarán debidamente registradas y se acusará recibo de todas ellas. Una vez analizadas, serán admitidas o rechazadas. El rechazo de las quejas se hará en escrito motivado, informándose a la persona interesada sobre las vías más oportunas para ejercitar su acción, si las hubiere.

2.– La presentación de una queja, así como su posterior admisión, no suspenderá en ningún caso los plazos previstos en las leyes para recurrir, tanto en vía administrativa como jurisdiccional, ni la ejecución de la resolución o acto afectado.

3.– La Defensoría no tiene competencia para revocar, anular o sancionar actos administrativos.

4.– La Defensora o el Defensor de la Infancia y Adolescencia no entrará en el examen individual de aquellas quejas sobre las que haya recaído sentencia firme ni de las que estén pendientes de resolución judicial. Asimismo lo suspenderá si, iniciada su actuación, se interpusiese por persona interesada demanda o recurso ante los Juzgados o Tribunales. Ello no impedirá, sin embargo, la investigación sobre los problemas generales planteados en las quejas presentadas.

*Artículo 16.–* Investigación.

1.– Admitida la queja o iniciado el procedimiento de oficio, la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia promoverá la oportuna investigación para el esclarecimiento de los hechos.

2.– En esta fase del procedimiento se dará audiencia a la persona contra la que se haya presentado la queja con el objeto de que realice, en un plazo no inferior a diez días, las alegaciones y aporte los documentos y otros elementos que considere oportunos en su descargo o a los efectos del esclarecimiento de los hechos. La persona contra la que se haya presentado la queja tendrá acceso a las diligencias de investigación efectuadas, que deberán estar debidamente documentadas en el expediente, a efectos del cumplimiento del citado trámite de audiencia.

3.– Ikertu beharreko gertakariek administrazioko organo edo bulego bat eraginpean hartzen dutenean, kexaren funtsezko edukiaren berri emango zaio gertakarien arduradunari, gertakariei buruzko txosten bat bidal dezan nondik norakoen arabera ezarritako epean.

4.– Gertakariak Administrazioaren jardunarekin lotuak daudenean Arartekoari ere jakinaraziko zaio, espedientearen ikerketa eta emaitzaren lanak koordinatzeko.

5.– Jasotako kexak Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzkoak direnean, Haur eta Nerabeen defendatzaileak Fiskaltzari jakinarazi beharko dio, egia den iker dezan eta dagokion neurriak har ditzan.

6.– Haur eta Nerabeen defendatzaileak delitu bat izan daitezkeen jarrera edo gertakari batzuen berri duenean, eskumeneko justizia-agintaritzari jakinaraziko dizkio.

*17. artikulua.–* Hizkuntza-tratamendua.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegora jotzen duten pertsonek bulegoarekin dituzten harremanetan euskara naiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea izango dute. Hori aintzat hartuta, eskubide hori gauzatzen dela bermatzeko dagokion neurriak hartuko dira.

*18. artikulua.–* Lankidetza-betebeharra.

Defentsa Bulegoaren ikerketaren eraginpeko pertsona fisiko eta juridiko guztiek beren zeregina errazteko betebeharra dute, gertakariak argitzeko beharrezkoak diren eta eskatzen zaizkien dokumentu, txosten edo argipenak emanez, arrazoizko epe batean, eta, aldez aurretik abisatuta, haien bulegoetarako sarbidea erraztuz, betiere bulegoak haien etxebizitzak ez badira; kasu horretan, haien esanbidezko baimena beharko da.

3. ATALA
ONDORIOAK

*19. artikulua.–* Txostenak.

1.– Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren ikerketa-jarduera arrazoitutako txostenekin amaituko da, otsailaren 18ko 3/2005 Legean bildutako eskubideak mehatxatzen edo urratzen diren ala ez adieraziz.

2.– Txosten horietan, gainera, Haur eta Nerabeen defendatzaileak honako hauek gaineratu ahalko ditu: oharrak, aholkuak, legezko betebeharren oroigarriak, eta beren eskumenen eremuan praktika edo neurri hobeak hartzeko iradokizunak.

3.– Kexaren eraginpeko pertsonak Defentsa Bulegoaren aholkuak betetzen ez baditu, Defentsa Bulegoak

3.– Cuando los hechos a investigar afecten a un organismo o dependencia administrativa, o a algún centro o servicio de naturaleza privada, se dará cuenta del contenido sustancial de la queja a la persona responsable de los mismos, para que proceda a remitir informe sobre los hechos en el plazo que se establezca en cada caso en función de las circunstancias concurrentes.

4.– En el supuesto de que los hechos estén referidos a la actuación de la Administración se informará también al Ararteko, con el fin de coordinar la labor de investigación y conclusión del expediente.

5.– Cuando las quejas recibidas vayan referidas al funcionamiento de la Administración de Justicia, la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia deberá dar cuenta al Ministerio Fiscal para que éste investigue su realidad y adopte las medidas oportunas.

6.– Cuando la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia tenga conocimiento de una conducta o hechos presumiblemente delictivos, los pondrá inmediatamente en conocimiento de la autoridad judicial competente.

*Artículo 17.–* Tratamiento lingüístico.

Las personas que se dirijan a la Defensoría de la Infancia y la Adolescencia tendrán derecho a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con ella y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan. A tal efecto se arbitrarán las medidas oportunas para garantizar el ejercicio de este derecho.

*Artículo 18.–* Obligación de colaboración.

Todas las personas físicas y jurídicas sometidas a la investigación de la Defensoría tienen el deber de facilitar su labor, aportando en un plazo razonable los datos, documentos, informes o aclaraciones que, siendo necesarias para el esclarecimiento de los hechos, les sean solicitadas, y facilitando, previo aviso, el acceso a sus dependencias, salvo que éstas coincidan con su domicilio, en cuyo caso deberá obtenerse su expreso consentimiento.

SECCIÓN 3.ª
CONCLUSIONES

*Artículo 19.–* Informes.

1.– La actividad investigadora de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia concluirá en informes motivados, determinando si aprecia o no amenaza o vulneración de los derechos recogidos en la Ley 3/2005, de 18 de febrero.

2.– En sus informes, la Defensora o el Defensor de la Infancia y Adolescencia podrá, además, incluir advertencias, recomendaciones, recordatorios de los deberes legales y sugerencias para la adopción de mejores prácticas o medidas, en el ámbito de sus competencias.

3.– En el caso de que la persona contra quien va dirigida la queja incumpla las recomendaciones realiza-

administrazio edo justizia arloko beste erakunde batzuen aurkako erreklamazioa izapidetzeko bideei buruzko informazioa emango dio erreklamatzaileari.

*20. artikulua.–* Jakinarazpena.

Haur eta Nerabeen defendatzaileak ikerketaren emaitza jakinarazi beharko dio kexa egin zuen pertsona fisiko edo juridikoari, eta kexaren eraginpeko pertsona edo pertsonei. Era berean, emaitza ikerketaren xede den administrazio-bulegoari edo erakunde pribatuari jakinaraziko zaio.

IV. KAPITULUA
LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

*21. artikulua.–* Lankidetza.

Bere eskumenak baliatzerakoan, Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak bere zereginak koordinatuko ditu:

a) Arartekoarekin, Euskadiko Herri Administrazioaren funtzionamenduarekin lotutako gaietan.

b) Beste autonomia-erkidegoetako antzeko erakundeekin.

c) Haur eta nerabeen arloan eskumena duten organo eta erakundeekin.

d) Haur eta Nerabeen Behatokiarekin.

V. KAPITULUA
LANGILEAK

*22. artikulua.–* Osaera.

1.– Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoko langileak konfiantzazko aholkulariak eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta horren organismo autonomoetako funtzionarioak izango dira, otsailaren 18ko 3/2005 Legean ezarritakoaren arabera.

2.– Agintaritza eta ikuskapena gauzatzea dakarten zereginak esleituak dituzten lanpostuak karreradun funtzionarioek bete beharko dituzte.

*23. artikulua.–* Plantilla.

Aurrekontuen esparruaren barruan, Haur eta Nerabeen defendatzaileari dagokio plantilla eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta baldintzak proposatzea eskumeneko organoari.

*24. artikulua.–* Aholkulariak eta konfiantzazko langileak.

1.– Aholkulariak eta konfiantzazko langileak libreki Haur eta Nerabeen defendatzaileak izendatu eta kar-

das por la Defensoría, ésta facilitará a la persona afectada información sobre las posibles vías de tramitación de su reclamación ante otras instituciones administrativas o judiciales.

*Artículo 20.–* Notificación.

La Defensora o el Defensor de la Infancia y Adolescencia deberá notificar a la persona física o jurídica que formuló la queja, así como a aquella o aquellas contra las que se dirigió la queja, el resultado de las investigaciones. Asimismo, el resultado se notificará a la dependencia administrativa o ente privado objeto de las investigaciones.

CAPÍTULO IV
COLABORACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES

*Artículo 21.–* Colaboración.

En el ejercicio de sus competencias, la Defensoría de la Infancia y la Adolescencia coordinará sus funciones:

a) Con el Ararteko, cuando se trate de asuntos relacionados con el funcionamiento de la Administración Pública Vasca.

b) Con las instituciones análogas de otras comunidades autónomas.

c) Con órganos e instituciones competentes en materia de infancia y adolescencia.

d) Con el Observatorio de la Infancia y la Adolescencia.

CAPÍTULO V
PERSONAL

*Artículo 22.–* Composición.

1.– El personal de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia está constituido, de acuerdo con lo establecido en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, por el personal asesor y de confianza y por el por personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos.

2.– Los puestos de trabajo que tengan asignadas funciones que impliquen el ejercicio de la autoridad e inspección deben ser ocupados por funcionarios o funcionarias de carrera.

*Artículo 23.–* Plantilla.

Corresponde al Defensor o Defensora de la Infancia y la Adolescencia, en el marco de las disponibilidades presupuestarias, proponer a los órganos competentes la plantilla de personal y las características y requisitos de cada puesto de trabajo.

*Artículo 24.–* Personal asesor y de confianza.

1.– El personal asesor y de confianza será nombrado y cesado libremente por la Defensora o el Defensor de

gutik kendu ahalko ditu, eta, nolanahi ere, izendatu zuen Defentsa Bulegoko titularrak postua uzten duenean automatikoki utziko du bere postua.

2.– Salbuespen gisa, Defentsa Bulegoko titularrak, 10.3 artikuluari dagokionez, 10.1 artikuluko 1.b) idatzzatian ezarritakoagatik bere postua utzi behar badu, eta, beraz, Haur eta Nerabeen defendatzaileak defendatzaile berria izendatu arte bere zereginekin jarraituko duela aintzat hartuta, aholkulariek eta konfiantzazko langileek ere beren zereginekin jarraituko dute.

3.– Erregimenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren zerbitzuan lan egiten dutenentzat ezarritakoa izango dute.

*25. artikulua.–* Gainerako langileak.

Gainerako langileei Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen erregimen juridikoa aplikatuko zaie.

*26. artikulua.–* Ikertzaileen ziurtagiria.

Defendatzaileak ziurtagiri bat eman beharko die ikerketako zereginak dituzten langileei, eta ziurtagiria pertsonala eta besterenezina izango da. Ziurtagiria baliogabetuko da ziurtatutako langileak postua uzten duenean. Dokumentu horrek Defentsa Bulegoaren ikerketaren eraginpeko edozein pertsona fisiko edo juridikoren aurrean agertzeko gaitasuna emango du, Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legean aurreikusitako baldintzen arabera.

VI. KAPITULUA
ERREGIMEN EKONOMIKOA

*27. artikulua.–* Integrazioa eta egitura.

1.– Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren zuzkidura ekonomikoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren dagokion Ataleko Gizarte Zerbitzuari dagokion aurrekontu Programan bilduko dira.

2.– Aurrekontuaren egitura aplikagarria den aurrekontu-araudian xedatutakoari egokituko zaio.

*28. artikulua.–* Lantzea eta onartzea.

Haur eta Nerabeen defendatzaileak urtero aurrekontuaren aurreproiektua onartuko du, eta gizarte-gaietan eskumena duen Sailari igorriko dio, hark onar dezan eta Sailaren aurrekontuan gainera dezan, Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Legearen proiektua izapidetzeko.

la Infancia y la Adolescencia y, en todo caso, cesará automáticamente cuando sea cesada la persona titular de la Defensoría que le nombró.

2.– Excepcionalmente, cuando el cese de la persona titular de la Defensoría se produzca por la causa establecida en el apartado 1.b) del artículo 10.1, en relación con el artículo 10.3, y en consecuencia la Defensora o el Defensor de la Infancia y la Adolescencia continúe desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de la nueva Defensora o el nuevo Defensor, el personal asesor y de confianza continuará desempeñando sus funciones hasta ese mismo momento.

3.– Su régimen será el establecido para el personal eventual al servicio de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 25.–* Resto de personal.

Al resto del personal le es de aplicación el régimen jurídico del funcionariado al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 26.–* Acreditación del personal investigador.

La Defensora o el Defensor ha de extender al personal que tenga atribuidas funciones de investigación un documento acreditativo de dicha condición, con carácter personal e intransferible. Éste perderá su valor cuando se produzca el cese de la persona acreditada. La exhibición de dicho documento será título habilitante suficiente para personarse ante cualquier persona física o jurídica sometida a la acción investigadora de la Defensoría, en los términos previstos en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

CAPÍTULO VI
RÉGIMEN ECONÓMICO

*Artículo 27.–* Integración y estructura.

1.– Las dotaciones económicas de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia se consignarán en el Programa presupuestario correspondiente a Servicios Sociales de la Sección correspondiente de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– La estructura del presupuesto se ajustará a lo que disponga la normativa presupuestaria aplicable.

*Artículo 28.–* Elaboración y aprobación.

La Defensora o Defensor de la Infancia y la Adolescencia aprobará anualmente el anteproyecto de presupuesto, que remitirá al Departamento competente en materia de asuntos sociales con el fin de que se apruebe e incluya en el presupuesto de dicho Departamento, para la tramitación del proyecto de Ley de Presupuestos de la Comunidad Autónoma.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Arauaren garapena.

Gizarte-gaietan eskumena duen Sailaren titularrari baimena eman zaio Dekretu hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Defentsa Bulegoa osatzea.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa haren antolamendua definitutakoan eta Lanpostuen Zerrenda aldatutakoan eratuko da.

*Hirugarrena.–* Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al titular del Departamento competente en materia de asuntos sociales a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.–* Constitución de la Defensoría.

La Defensoría para la Infancia y la Adolescencia se constituirá tras la definición organizativa del mismo y la correspondiente modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.

*Tercera.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 2019

AGINDUA, 2008ko martxoaren 6koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Erregistroetan dauden lanpostu hutsak betetzeko, ohiko lehiaketaren ondorioz, jabetzako, merkataritzako eta ondasun higiezinetako erregistratzaileak izendatzeko dena.

Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higiezinen Erregistroan hutsik dauden lanpostuak betetzeko instruitutako espedientea ikusi da; lanpostu horiek, bestalde, 2008ko urtarrilaren 30eko Ebazpenaz deitutako lehiaketan sartu ziren; hortaz, Autonomia Estatutuko 12.3 artikuluan agindutakoarekin bat eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, hau

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 2019

ORDEN de 6 de marzo de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre nombramiento de Registradores de la Propiedad, Mercantiles y de Bienes Muebles en Resolución de Concurso Ordinario de vacantes existentes en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el expediente instruido para la provisión de Registros de la Propiedad, Mercantiles y de Bienes Muebles vacantes, comprendidos en el Concurso convocado por Resolución de 30 de enero de 2008, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12.3 del Estatuto de Autonomía y en uso de las facultades conferidas por el Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social,